



Kaleko istorioak

Hiri kondairak ahoz aho dabiltzan istorioak dira. Sinesgarritasuna ematen diegu askotan, faltsuak diren arren

Su baten inguruan bilduta gaude. Edari eta janari faltarik ez dago, batak zein besteak ekarrita. Udako gauak zeru izartsu bezain polita oparitu digu gaurkoan ere.

Gure kontuetaz hizketan ari gara. Baina halako batean, ia bapatean, lagun batek hizketaldiaren tonua guztiz aldatzen duen gaia aipatu du. Aurpegi alaiek pixkanaka bestelako itxura hartu dute. Harridura, beldurra eta zalantzaren artean kokatzen den aurpegia jarri du askok.

Bere adiskide bati gertatutakoa kontatu behar digu orain. Gainera gure herritik gertu izandako istorioa da. Alboko herriko jaietatik bueltan gertatu omen zen, kotxean zihozazela...

Hau izan da betidanik kaleko istorioen transmisioa bultzatu duen giroa. Sua, eta suaren inguruan sorrarazten den giro berezi hori. Gaurkoan internet eta bestelako komunikabide berriek izugarri azkartu eta ugaritu dute istorio hauen transmisioa.

Kaimanak albistegian

Kaleko istoriak dira. Hiri-kondairak, edo, FOAFs, ingelesez. "Friend of a friend tales". Lagun baten lagunaren istorioak.

Errepideko bihurgunean auto-stopa egiten duen neskaren istorioa, saltxitxa fabrika batean desagertutako langilearena edota Coca-Colaren formula sekretuaren inguruan diren kaleko istorioak benetakako klasikoak dira.

Bizitza propioa duten istorioak dira. Denboran zehar mantendu, garatu eta gaurkotu egiten dira. Eta, antza, afera honetan globalizazioa aspaldikoa da. Izan ere, horietako zenbait istorio ia unibertsaltzat jo genitzake. Gaia sakonki ikertu dutenek diotenaren arabera, askotan gure inguruetan esaten direnak beste nonbaiten, askotan oso urrun, jaiotako istorioen *bariazioak* baino ez dira.

Ezagunen batek kontatzen digunean, baliteke ez sinistea, baina istorio horiek hedabideetan azaltzen direnean sinesgarritasun osoa irabazita

daukate. Vocento taldeko aldizkari famatu batean, adibidez, lapurrek erabiltzen omen duten kode sekretua argitara eman zuten. Eta Espainiako telebista bateko berriemate batek New Yorkeko estoldetan diren kaiman erraldoien inguruko kronika egin zuen aspaldian.

Konfidantza nori?

Coca-Colaren formula bi lagunek baino ez dute ezagutzen, eta debekatuta daukate hegazkin bera hartzea. Aspalditik entzundako kaleko istorioa. Beste klasiko bat, dudarik gabe.

Mundu osoan zehar barreiatutako “bizitzaren txispa” kaleko istorio askoren protagonista da. Istorio hauek hain zabaldua daude inkluso enpresaren webgune ofizialean tarte oso bat dagoela horrelako “zurrumuru eta mitoei” eskeinia.

Baina zelan bereizi daiteke kaleko istorio bat benetako gertaera batetik? Zenbait kasutan asmo hori nahiko era errazean gauzatu badaiteke ere, badira kontrastatzeko zaila izaten direnak.

Horren adibide dugu satellite bidezko irudiak protagonista dituen istorio bat. Aspalditik entzuna da Txinako Harresi Handia espaziotik begi hutsez

ikusten den giza eraikin bakarra dela. Horrela uste izan du mundu guztiak, eta baita txinatarrek ere. Baina 2003an Txinak espaziora bidalitako lehen gizakiak berak harresia ez zuela ikusi esan zuen. Eta Txinako agintariak “errealitatea” onartu behar izan zuten, testu liburuetatik “sinismen” hori kenduta.

Sinismena? 2004ko maiatzan Europako Espazio Agentziak gauzak bere lekuan jarri zuen: harresia espaziotik ikusgai zen, eta horren froga gisa argazki bat helarazi zien hedabideei. Zientziak bere ebazpena emana zuen. Baina handik 10 egunetara esandakoa gezurtatu behar izan zuten. Argazkiotan ikusten zena ez zen harresi handia, ibai bat baizik.

Horrelako gertaera batek argi uzten digu askotan zein zaila den egia eta gezurra bereiztea. Seguruenez gutako inork ez du aukerarik izango espaziora bidaiatzeko eta Txinako Harresia begi hutsez ikusgai ote den konprobatzeko. Beraz baten bati delegatu beharko diogu gure konfidantza. Beste pertsona edo erakunde bati “sinesgarritasuna” eman beharko diogu. Nori ordea?

Juanma Gallego

Bihurguneko neska

Dagoeneko gaua sartu da, eta euria etengabe ari du. Kepa bere autoa gidatzen ari da, lanetik bueltan. Bapatean auto-stopa egiten ari den neska gazte bat ikusi du. Ez dago trafikoa askorik ordu horretan, eta arraroa gertatu zaio horrelako ordu horietan norbait auto-stopa egiten ikustea. Kotxea berehala gelditu eta neska hartu du. Atzoko partean sartu da neska, mesfidati agian. Biak hizketan hasi dira, eguraldi kaxkarra aitazkitzat hartuta. Baina bapatean neskaren ahotsak tonu serioagoa hartu du.

- Aizu, arren, hartu kontu handiz bihurgune hori. Oso arriskutsua da. Ni neu hor bertan hil nintzen.

Kepak atzera bota du begirada, aztoratuta. Baina kotxearen atzekaldean ez du inor topatu.

Estoldetako kaimanak

New Yorkeko saneamendu zerbitzukoak nahiko beldurtuta daude azken hilabeteotan. Eta kontua ez da gutxiagorako. Diotenez, New Yorkeko estoldetan kaimanak topatu dituzte. Bai kaimanak, benetako kaiman erraldoiak!

Baina nola demontre egon daitezke kaimanak estoldetan?. Ez pentsa beste munduko gauza bat denik. Kontuak azalpen erreza du. Jende askok hegoaldean ematen ditu oporrak, Florida eta Louisiana bezalako Estatuetan. Hor kaiman kumeak erosten dituzte. Oso animalia txiki eta

xelebreak dira. Baina tira, badakizu, oporren bueltan etxera ekarri eta kaimantxo horiek ikaragarri hazi egiten dira. Beldurtuta, eta jakinda kaimanak erostea debekatuta dagoela, arazoari irtenbide erraza topatu diote askok. Komunetik bota eta listo, akabo arazoak.

Kaiman-kume horietako askok bizirautea lortu dute, eta orain kaiman erraldoi horiek dira estoldetako benetako erregeak. New Yorkeko azpikaldearen jaun eta jabe....

Sorpresa, sorpresa

A ze pasada! Oraintxe bertan eman berri dute, aizu! “Sorpresa, sorpresa” horretan... bai telebistako programa hori. Nik ez dut ikusi baina Ainhoak bai, eta oraintxe bertan kontatu dit telefonoz!

Kontua da sorpresa bat prestatu behar ziotela neska bati. Ricky Martin eraman dute bere etxera, bere ametsetako mutila. Etxea kameraz josita zegoen, eta guzti guztia harrapatu dute. “Tipa” hori etxean sartu, zapatak kendu eta ohera joan da, lasai asko, bere txakurtxoarekin jolasean. Baina halako batean neska altxatu da, sukaldera joan, eta marmelada pote bat hartu du hozkailutik. Gero ohera bueltatu da, bere txakurrarekin. Halako batean gona eta kuleroak kendu ditu eta hankartea marmeladaz josi du! ... Ricky Martin gixagoa armairuan zegoen izkutatuta, eta ezin duzu imaginatu ze nolako tonto itxura zeukan! Emisioa berehala moztu dute, baina ia guztia ikusi da!